

## Balore proposamena

### Zer da?

Sortu dugun proiektua sakelako aplikazio batean datza, erosketak egiteko aplikazioa.

Aplikazio hau existitzen den produktu baten moldaketa da eta honetan datza: Aplikazio honek eskeintzen duena, mugikorrean dagoen GPS-aren bitartez (mugikorretik aktibatu ahal den GPS-a ) estatu espainolean patrozinatzen ditugun supermerkatuak (Mercadona, Simply, Eroski, Dia, Carrefour, El Corte Ingles, Lidl) lokalizatzen ditu. Bezeroaren kokapena lokalizatzean, honetatik hurbilen dauden supermerkatuen kokapena ematen du eta horraino dagoen distantzia kalkulatu du ; horraino heltzeko behar den denbora ( minututan) eta distantzia fisikoa (km-etan) eskeintzen du. Informazio hau bizikletaz, autoz eta oinez ematen du.

Beste alde batetik, gure aplikazioak eskaintzen dituen beste zerbitzuak hauek dira:

- Produktuen bilaketa;

Nabigatzaile baten bitartez supermerkatuen produktuak bilatu ahal dira eta supermerkatuaren planoaren bitartez produktuak lokalizatu ahal dira. Bezeroak, nahi duen produktua nabigatzailean sartzerakoan, eskura daukan artikulu guztien informazio laburra adierazten du.

- Dieta bereziak (diabetesa, zeliakia) eta dieta egokituak.

Eskaintzen dugun beste zerbitzu bat, dieta egokituak jarraitzeko aukera da. Alde batetik alergiak dituzten pertsonak, pertsonalizazio osoaz "disfrutatu" ahalko dute ;kontsumitu ahal dituzten elikagaien zerrenda eskuragarri izango dute eta ezin dituztenak gorritz agertuko dira. Intolerantziak dituzten bezeroek zerbitzu berdina izango dute; toleratu ezin dituzten elikagaiak aukeratu ahalko dituzte prozedura berdinarekin.

Beste alde batetik, diabetes eta zeliakia ( gaixotasun ohikoenak) dauzkaten pertsonak aukera berdina izango dute.

Horrela, dieta hauek jarraitzea errazago izango da eta pertsonen osasuna egokia izan dadin lagunduko du gure aplikazioa.

- Supermerkatu bakoitzeko ofertak eta promozioak

Bizitzen ari garen garaia eta krisiak eragin dituen sarraskiak kontuan izanda, oso garrantzitsua ikusten dugu diruaren kudeaketa egoki bat egiten laguntzea.

Horretarako, supermerkatu bakoitzaren eskaintzak ikusgai egongo dira bezeroari hoberen egokitzen zaion aukera egon dadin.

- Produktuen prezioa kontabilizatzea

Erosketak egiterakoan hautatutako produktuen kontaketa egingo da. Zenbat diru gastatu nahi duzun eta zenbat daramazun kontabilizatzen. Zerbitzu honekin lortu nahi duguna, erosketen prezioa kontrolatzea da eta erosketak ekonomikoak egitea modu erraz batez.

- Aplikazioaren bitartez ordaintzea (supermerkatura joan gabe)

Aplikazioaren bitartez erosketak egiteko aukera emango dugu, supermerkatura joan gabe. Hau da, aplikazioan sartzerakoan eta erosketak egiterakoan ordaintzeko modua erabaki ahal izango da. Supermerkatuan ordaintzerakoan, zure erosketak zerrenda duen zenbakia kutzazainari esan eta ordainketa egingo da. Halaber, aplikazioaren bitartez egiten baduzu, kreditu txartelaren zenbakia sartu eta segituan ordainduko duzu eta egindako eskaera zure etxera bidaliko da.

- Supermerkatuen lokalizazioa

Aipatu dugun moduan, supermerkatuak lokalizatu eta zugandik zer distantziara dauden ikusgai egongo da.

Aplikazioa IOS eta Android plataformetan eskuragarri egongo da.



Hauek izango dira patrozinatuko ditugun supermerkatuak(Mercadona, Simply, Eroski, Dia, Carrefour, El Corte Ingles, Lidl).





## Zertarako balio du?

Aukeratutako ideia merkatuan existitzen den produktu baten moldaketa da, bezeroei honen erabilera errazteko. Mugikorrerako aplikazio baten bitartez, bezeroek erosketara era erraz batean egitea ahalmentzen du. Bestalde, konpondu nahi ditugun arazoak hurrengokoak dira: denbora ez galtzea produktuak bilatzerakoan, hau da, erosketara modu errazago eta azkarrago batean egiteko aukera ematea eta zerbitzu berriak eskaintzea; beharbada arazo nutrizionalak dituzten pertsonak ez dute oso argi nola eta zer erosi behar duten, adib. obesitatea pairatzen duten pertsonak agian ez dakite zer nolako dieta jarraitu behar dute eta gure app-a lagungarri suertatu ahal zaie.

## Zergatik aukeratu dugu proiektu hau egitea?

Proiektu hau aukeratu dugu hurrengo arrazoiengatik: Erosketak, egunero egiten den jarduera bat da non presaka eta gaizki egiten dena, behar den denbora eman gabe. Hori dela eta, dieta txar bat eramaten dugu, osasunari kalte egiten dio (estres, bizitza kalitate baxua, logura falta, energia falta eta ezinegona...), eta ez daukagu denborarik produktu onena aukeratzeko. Oso erabilgarria dela pentsatzen dugu eta horrelako beste aplikazio batzuk egon arren, gurea aitzindariak diren hainbat aukera ematen dizkizu.

## Proiektuaren diseinu teknikoa:

Eskaintzen dugun proiektua erosketarako aplikazio batean datza. Edozein lekuko supermerkatuetan erabili ahal den aplikazioa da eta esan ditugun zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Produktuen bilakera.
- Dieta bereziak (diabetesa, intolerantziak...) eta dieta egokituak
- Supermerkatu bakoitzeko ofertak eta promozioak
- Produktuen prezioa kontabilizatzea
- Aplikazioaren bitartez ordaintzea (supermerkatura joan gabe),
- Erosketaren pertsonalizazioa (“nahiak” bilatzeko aukera)
- Supermerkatuen lokalizazioa





Gure proiektuan dauden balorezko proposamenak honako hauek dira: aurrez existitzen diren app-ak eraldatuko ditugu, hau da badakigu gure produktua ez dela horrelako bakarra baina existitzen direnak hobetu ditugu. Eskaintzen ditugun prestazioak horretan datzate, produktuaren erabilera hobetzean. Pertsonalizazioaren aldetik, produktua bezero baten beharretara egokitzean datza, gure kasuan egin duguna aplikazio honetan, guztiz pertsonalizatzeko aukera eman dugu eta ezinbestekoa da gainera, hau da bezeroaren beharrak zein nahiak bertan agertu behar dira produktuari etekin maximoa atera ahal izateko beraz, aplikazioa

bezeroaren informazioarekin (zenbat diru gastatu, zenbat egunetarako erosketa egin...) beteko da.

Merkatuan gakoa denez eskala handiko ekoizpena banan-banako beharretara egokitzearen uztarpena, horretan oinarritu dugu gure produktuaren balioa.